

IKASTARO OSAGARRIA

KONPONBIDERAKO JUSTIZIA: BITARTEKARITZA IKUSPEGI BERRIAK

Eusko Jaurlaritzako Justizia Zuzendaritzaren babesarekin eta Euskal Biktimologia Sozietatearen laguntzarekin, Kriminologiaren Euskal Institutuak BITARTEKARITZA bultzatzeko prestakuntza ekintza hau antolatu du.

BITARTEKARITZAK, gatazkak konpontzeko metodo alternatibo gisa, lehenik, beste ezeren aurretik, jarduteko eta erantzuteko kultura berri bat ezartzea eskatzen du. Berrikuntza ere beharrezkoa eta egokia da pertsonen arteko harremanak bideratzeko modu eta metodoetan. Eztabaiden ohiko konponbidea hirugarren batek gatazka amaitzean datza. Gizarte, ekonomia eta kultura aldaketek orain arte egokitzen hartzen ziren hainbat portaera aldatzera garamatzate. Gaur egun behar-beharrezkoa da erantzukizun pertsonala, bizi independentzia eta nor bere ardurak hartzea. Horregatik, lehenik, kultura sortu behar da.

Konponbiderako justiziak garrantzi berezia du Euskal Herrian, eta jarduketak ezin dira soilik esparru juridikora mugatu.

INFORMAZIO OROKORRA

- **IKASTURTEA:** 2016/2017
- **KREDITUAK:** 20 ECTS (1 ECTS kreditu = 25 ordu) ¹
- **MATRIKULA PREZIOA:** 600 euro
- **IRAKASKUNTZA MODALITATEA:** ERDI-PRESENTZIALA

BLOKE TEMATIKOAK

- 1) Gatazkak konpontzeko metodoak. Bitartekaritza eta negoziaketa teknikak.
- 2) Konponbiderako justizia.
- 3) Bitartekaritza zibila
- 4) Familiako bitartekaritza
- 5) Zigor arloko bitartekaritza
- 6) Presondegiko bitartekaritza
- 7) Gazteen arloko bitartekaritza
- 8) Osasun arloko bitartekaritza
- 9) Poliziaren bitartekaritza
- 10) Bitartekaritza praktikak

Ikastaroa emango den lekua:

1.- Eskola magistralak:

- **Carlos Santamaria zentroa (Gipuzkoako Campuseko Liburutegi Nagusiaren eraikina)**
Elhuyar plaza, 2
20018 Donostia (Gipuzkoa)

¹ Igorriko den ziurtagirian, 20 kredituetako kurtsoa izan dela azalduko da, eta kreditu bakoitzak 25 ordu balio duela, 500 ordu ziurtatzen direlarik.

2.- Praktikak:

- **Gipuzkoako Probintzia Auzitegia**
San Martín kalea 41
20001 Donostia (Gipuzkoa)

Ordutegiak eta datak:

- **Eskola magistralak:**

Ostiraletan, 15:30etik 19:30era, 2016/10/14tik 2017/03/03ra.

Bertaratze modalitatea, ikasgelan (60 ordu), Carlos Santamaría zentroan honako egunetan: urriak 14, 21 eta 28; azaroak 4, 11 eta 25; abenduak 2 eta 16; urtarrilak 13 eta 27; otsailak 3, 10, 17 eta 24; martxoak 3.

- **Praktikak:**

Ostiraletan, 9:00etatik 14:00etara, 2016/11/04tik 2017/02/10era.

Klase praktikoak (50 bertaratze ordu), Gipuzkoako Probintzia Auzitegian, honako egunetan: azaroak 4, 11, 18 eta 25; abenduak 2 eta 16; urtarrilak 13 eta 27; otsailak 3 eta 10,

Aurretiko izen-ematea:

- Aurretik izena emateko epea irekita egongo da gehienezko plaza kopurua (25 plaza gehienez) bete arte. Aurretik izena emateko, dagokion inprimakia bidali behar da NANaren fotokopiarekin batera, honako helbide elektroniko honetara: cursomediacion.ivac-krei@ehu.eus.

Matrikula:

- Irailaren 14tik 23ra (biak barne).
- Kriminologiaren Euskal Institutuaren egoitzan (9:00etatik 13:00etara)
Carlos Santamaria zentroa (Gipuzkoako Campuseko Liburutegi Nagusiaren eraikina)
(D-14 bulegoa)
Elhuyar plaza, 2
20018 Donostia (Gipuzkoa)

Informazioa:

- **Kriminologiaren Euskal Institutua**
Carlos Santamaria zentroa
Elhuyar plaza, 2
20018 Donostia (Gipuzkoa)
- **Telefonoa:** 943 01 74 65
- **Helbide elektronikoa:** cursomediacion.ivac-krei@ehu.eus

Eusko Jaurlaritzako Justizia
Zuzendaritza



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Departamento de
Administración Pública y Justicia

Euskal Biktimologia Sozietatea



SOCIEDAD VASCA DE VICTIMOLOGÍA
EUSKAL BIKTIMOLOGIA SOZIETATEA